


[16]

1972 - E. Kaina

18





Aski larria da guraso eta irakasle-
leen arteko arazoa. Sikologo nai-
zenez, guraso askorekin tratatzen
dut, eta iduri zait kontrako bi sen-
tipen mota ematen direla gurasoen
gan. Batetik, esan dezagun, berek
(gurasoek) haurrekin erdiets ezin
dutena lortzeko irakaslea izan da-
dila gai desiratzen dute, hau gizan
di bat bailitza... Bestetik, beldur
dira baita beren haurrek gurasoak
baino irakaslea gehiago ez ote du-
ten maite.

Hain xuxen, gisa horretan, ez dai-
teke haurra hezitzeko edo lantze-
ko behar den armoniarik.

Paillet

HINTZIN SOLASA

Aski berandu heldu da oraingo zenbakia. Beharko da berriro irakasle jendea zirikatzen enseiatu, bestenaz... ez da posible aldizkaria bere garaian etor dadin.

\$E \$E\$ E\$E\$E\$E\$E\$E\$

Baliteke jendea lanpeturik eta nekatua ibiltzea, behin urte sasoin honetaz gero; baina norbaitzuek bederen zertxobait ahaleginduko balira. Honetan, lruinekoak jarraitzen dute finki hilabete oro beren gaia lantzen. Donostia aldetik ere bada bat edo beste idazle pisudun eta segurua. Txantxikuarrei ahaztu ote zaie aldizkaria zenbait hilabetetan zehar hain poliki bultza ondoan? Eta bizkaitarrek zer? Deus idazten ez dutela esateko bezainbat. Hau duk hau.....!

%%%%%%%%%%

Aspaldi honetan bezala, heziketaz mintzatzen da gehienik zenbaki hau. Alde batetik, gogoeta serio eta baliotsuak ematen dauzkigute; eta bestetik, esperientziazko lanak ere badira, xehe eta soilak baina baliozkoak, zeren-eta jende berria bait da idazten duena. Informazio alderdia dabileskasena. Eta ez du inork esan ahal izango gertaerarik izan ez denik, eta ondorioz gertaerak mai seatuz kritika jator bat edo beste oraingoan sar ez zitekeenik. Baina... non dira, non?



EGUNGO Eskolaz Pentsaketan

EGUNGO ESKOLAREN ERAKETA ZERGATIK DA AUTORITARIOA?

Eskolaren eraketa autoritarioa izatearen azken arrazoia ez da planteamendu psikologiko oker bat, ez-eta eskolak beste zernahi eraketaz gonbaratuz ukan dezaken atzerapen teknikoa. Minoria batek bere pribilegioak zaintzeko erabili ohi duen tresnetarik inportanteenetako bat izaki, eskola autoritarioa behar izan. Eskoletan harreman zapaltzaile baten lehen zutabea finkatzen da.

Nor eskulanetarako soilki, nor aginte lanetarako egoki den zehatz ebakitzen dela, nor agintzeko eta nor esaneko izanen den seinalatzen da. Esaneko izanen denari bizi-modu honen esperientzia egin-erazten zaio tippidanik. Eta agintedun izatera destinatuari, aginteak ematen duen poza dasta-eraziko zaio. Eskola hau guztiei beharrezko zaie, jende guztia eskoletan barrena pasa behar du eta esku-lanetarako behar den jendea hemendik prestatzen hasi behar da.

Gero, gizarte osoaren euskarri izanen diren harreman gain-beherakoak eskolan bideztu eta instituzionalizatu egiten dira. Hasi behe-behetik eta goieneko mailaraino dena ongi eraturik dago. Irakasleek irakasleen aginduak bete behar dituzten bezalaxe, irakasleek zuzendari baten esanetara egon behar dute. Goragotik inspektore eta azkenik goi erresponsableek, ministroaren gidaritzapean.

Hutsunerik gabeko eraketa honetan Nork bere gainekoari beldur dion bezala nor bere menpekoaren zanpatzaile gertatu ohi da gehienetan. Eskolaren klaseak ere ondo metaturiko antolaketa bat erakusten daukute. Lehenik, behe mailako eskolak, erdi mailako eskolak, tekniko kolegioak eta gain-estruktura unibersitateak osatzen dute. Unibersitate mailan berean ere karrerak nobleagoak nahiz arruntagoak izan daitezke. Eta gailurrean nazioaren a-

gintea zuzentzeko eskubidea ukanen duten ikasleak ditugu. Eskolak errealitateaz azalpen bat ematen du, guztiei ikuspegi hau onar-erazten die baina egiazki honela denik, praktitkoki froga gar birik eskaintzeke. Eguneroko bizitzaren errealitateaz ezer kontras tatzen ez den artean guztiek eraketa hau ontzat eman dezaten ez du zail zailtasun handirik eginen. Alderdi honetatik jakintza-ko munikatzaile baino gehiago ere ideologia baten zabaltzaile gerta tzen da egungo eskola.



Hontaz gain eskolak gaitasun berezi baten mitoari eusten dio: zu ez zara honetarako egoki esaten maiz entzun ohi dugu. Gaitasun hau zerk dezaken ez du zehazki azalduko. Honela izan da beti batek kimikarako dohainak dituen eran besteak

esku lanetarako trebetasuna izan dezake-eta. Beste aldetik eskolak, denek reglamendu berdin baten bar nean sartzen dituela ez du onartzen

inor bere joera berezien atzetik gehiegi urrun dadin jokabide jeneral batetik. Azkenik, jendeak bere autoselekzioa egin dezan lor tzen da. Honetarako aski da bakoitzari zertan den trebea adieraz tea. Ez bada konstante, ez badu honetarako joera handirik edo-eta adu egotea lortzen ez badu, berehala esanen zaio beste hamai ka kualitate on izan arren, ez dio axolarik. Errudun, ikaslea bera izanen da; ez da, ordea, eraketaren beraren zuzentasuna inoiz zalantzan jarriko. Eraketa errespetatu, nahiz-eta ikaslea hondatu. Hau bait da guztiaren gaineratik justifikatu behar dena. Sorturiko ordena errespetatu, nahiz-eta pertsonari errespetua galdu.

Autoritarismoa, bada, garai guztietan eta mailaketa guztietan zehar bere eginkizuna betetzen ari zauku. Honen bidez hautamen bat egiten da, jendearen lan-era markatzen da, eraketa honen zuzentasuna hedatzen da eta nortasun berezien gaitasun markatuenak

ito egiten dira.

Adibidez, irakasle batek deihadar eginaz ikasleak beldur baiditza bere nahiak errazago egingen ditu. Besteak honelako bide gogorretara jo gabe ere ikasle baten gaitasunik eza bigunkiro azalduko dauku. Funtsean, ez dago alde handirik bi heziketa mota hauren artean. Biak dira elkarren kideko. Programa bete beharrez eta gogoz kontra bada ere, egiazko problemak ikus-erazten ez dituenak eta lehengo burokraten antzera notak ematen jarraitzen duen irakaslea elkarren antzeko dira. Autoritarismoak alderdi hanitz du eta era desberdinetan agertzen zaiku baina azken azkenik funtsezko eraketa baten ondorio ditugu.

Eskolaren eraketa gainbeherako izatearen azken arrazoia minoria baten tresna zapaltzaile izatean datza. Majoria bat esaneko izan dakion hezi behar du egin eta honetarako eskolaren eraketaz da baliatzen.

Eraketa zapaltzaile honen aurka espontaneismo nahiz kreatibitate pertsona bizkortu nahi izatea maiz aski geratzen bada ere, kreatibitate hau zinez errotu nahi badugu, gerora ere iraunkor izan dadin nahi badugu, eraketa zapaltzaile honen aurka, eguneroko errealitate zapaltzaile honek zapaldu egiten du, biolentziaz baliatzen da, eta honen garaile izatekotan honetaz jabetu eta kontrako lanean hezi beharko da.

EGUNGO EGOERAN, AUTORITARISMOAREN AURKA EGINIKO

ESPERIENTZIAZ ZER ADIERAZI NAHI DA?

Lehenik zer ez den esaten saiatuko gara. Ez da inolaz ere metodologia demokratiko bat. Demokrazia giro bat sortuz gero, denok badukegu gure hitza ateratzeko eskubidea, denon artean erabakiak hartuko ditugu, gure egitaraua denok elkarrekin kolaborazioan pres

tatuko dugu. Gisa honetako antolamendu batek ez bait dio lehen esaniko problemari erantzunik ematen, dena lehen bezelaxe uzten du. Selektzioa, lanaren banaketa, guztiek eraketa hau onartzea, errealtatetik kanpo ibiltzea. Behar bada gizarte honen oinarri diren egungo harremanak erraztu egiten dira, harreman hau gizonen arteko desberdintasun jatorrizkoak, eginkizunen mailaketa eta lanaren banaketa kausatzen dute.



Bestalde antiautoritarismoaren esperientzia hau ez datza ez eta arau oro ezabatzean, inor ez behartzean bere joerak eskatzen ez dutenik ez ematean. Pertsona behartuz beldurrez arauak baztertzerat jotzen dugunean, pertsona bakoitzaren kreatibitatea, nahiz espontaneismoa ezartzen dugu eredu bezala. Ezer inposatu gabe, nahiak eta asmoak agertu hala asetzen joatean, aldeztu dugun ikuspegiak adierazi

zi nahi daukuna zera dugu. Guztien gain baloratu behar duguna, arautzat hartu behar dugun pertsona bakoitzaren espontaneismoa da. Hau errespetatuz gero, gizarte honen eraketa oinarrizkoa aldatzerat hel gaitezke. Bide honetatik lortuko duguna zera izanen da. Eskola egiazko bizitzatik at erakarri isla zoriontsu bat bilakatzeko, egiazko kontradizioetatik urrundu egingen du, eguneroko errealtatetik kanpo ekarriz. Baina nahi eta ez eguneroko bizitza hau bestelakoa dugu, kontradizioz josia dago, errepresiboa da goitik beheraño. Giro hau beraz artifiziala izanen da, ez du ez eta errealtatearen aurriz aurre reaktionatzeko prestatuko ere. Heziketa hau gehien landu den eskoletan ere gehien bat askatasun sexual eremuan lortu da, eta gehiegi jendearen atentzioa arlo honi begira jartzen da, nahiz eta gero onartu egungo gizartean ez dela posible askatasun sexual batek onartu behar lituzken ohiturak onartzea. Eta bestetik ez dio ikasleari gizarte honi erasoko badio beharrezko zaion gizarte honen eraketaren azalpen bat, ez dio bide

konkretorik urratzen lagundu, ekintza zehatz bat eramaten lagunduko dionik.

Orain arte eginak diren esperientziak aztertzean hau nabari dezakegu. Antiautoritarismo honen haseran negatiboki jartzen dela nolabaiteko abiaburua eta hau egungo eskoletan ematen den heziketak onartzen dituen agindu guztiak gaitzestean datza. Heziketa praktikoak egun dituen egitaraua hankaz gora bota behar da. Horarioak, programak, notak, jerarkiko harremanak, hauk denak medio direla lortzen da pertsonak egungo gizarteari klase nagusiariegoki zaion, jokabide mota inposatzea.

Praktika hauk guztiak ez onartzea base minimo bat dateke, esperientzia antiautoritario bat egin ahal izateko. Zergatik memento negatibo honi lehenik garrantzia eman behar zaio? Norberaren domestikazioa kausatzen duten praktika hauk ez onartzeaz, ikaslea gerora ere maneatua izan ez dadin gertatzen da. Badaiteke hurrengo urte batez ikasle hauk, beste irakasle trebeago edo progresista baten esku egotea. Egoera honen bidez irakasleak ikasleak pertsonalki kontrola dezaten bultzatzen ditu eta bestetik irakasleak bere burua kontrolatzeko erabakia hartzen du. Azken ondorioetara helduko bada ere, ez du atzera egingen, ez du onartuko represio ideologiko baten menpean bere eginkizuna betetzea. Gainera praktika honekin bi gauza lortzen dira.

BATETIK, eskolaren burokrazia, eskolaren seriotasunaz nahasi dugunetik badirudi ez dela egiazko seriotasunik burokrazia honetatik at. Hau dugu eskoletako mitoa bihurturik egun. Ideia hau gureganatu dugunetik, lehen-zailtasunak sumatu bezain laster, ziurtasunaren bila joko dugu berriz ere eta gure asmo on guztiak bertan behera utziko ditugu. Klarki, eraketa hau gaitzetsi ez badezagu nahi eta ez lehenera itzuliko gara.

BESTETIK, prozesu negatibo ahalik luzeen saiatzeari beharrezko izanen da, hain barnean sarturik dugun estruktura hau eten nahi badugu. Dramatikoki bizi beharko dugu esperientzia hau mingarri e-

re izanen zauku. Irakasleak esperientzia hau biziki sentituko du euskarri, izanen zaion arau segururik ez bait du izanen, zeri helduko dion une bakoitzean idoro beharko du. Honen esperientzia egitea, egungo gizarte honen usteltasunaren esperientzia egitea izanen da hein batetan bederen, ez bait gara basamortuan bizi, g^uzarte burges gain behera eraturiko honetan baizik.

Gaitzespen honek argitzen duen beste alderdia, egoera neutral bat ez dela egiazkoa, eskolako giroa astraktoa izan ordez ikasleen kontradizio zehatzak argitzera eraginen du. Programa onartzen ez denean, estudianteen sozial jatorriz azterketa bat egin daiteke, mugitzeko nahiz harreman pertsonal batzuk izateko sentitzen den beharraz hitz egin daiteke.

Gaitzespen honetan azken hondoraino heldu bebarudugu. Eginko saiakerek erakusten daukutenek. saiakera negatiboak zailantza ibili direnek eginak izan direla. Egiten ari ziren neurria, segurtasunik eza sumatzen zuten eta lehenera itzultzeko tentazioa. Orduan hasi dira zati baten haserako metodoetara jotzen, beste atal baten berriak saiatzeko eta ikasleen aurrean konfiantza galdu egin dute.

Honetaz gain esperientzia hau luzea izan dadin beharrezko ikusten da. Bai irakasleak, bai-eta ikasleak barne hezurretaraino sarturik duten norma-eraketa aska dadin dramatikoki esperientzia hau dasta dezaten beharrezko. Batetik irakasleak zeri eutsi ez du elarik, nahi-eta ez bizi behar du larri-une hau, eta berdin, irakasleak. Baina ez gara basamortuan eta deus sakon aldatu nahi badugu beharrezko da.

BIGARREN gaitzespen honen bidez sortzen den eskola giroa ez da neutral izanen, ez da abstraktoki sumatuko; aitzitik, egiazko kontradizioak agirian jarriko ditu, eguneroko ikasleen kontra esanak zorrotz eginen ditu. Programa bat gaitzesten den mementotik ikasleen sozial jatorriz, ikasleen represioez eta behar pertsona

lez, harreman pertsonal batzuen beharrez jabetzea posible gertatzen da. Baina hau egin ahal izateko ez da aski norma batzuk erastea, hauen ordezkorik ez jartzea ere nahi eta ezkoa da. Bestela esan, esperientzia hau bizi egin behar da instituzioa baten poderioa leundurik diren kontradizioak bere latzean begiz jo ahal izateko.

HIRU GARRENIK gisa honetako saiakerak baten nondik-norakoa.

Helburu positiboak sainalatzeko sobera goiz izanen da agian, baina beharrezko da bestalde orientazio nahiz norat eta zertarat abiatzen garen honetako saiakerarik has dezagunean. Ez bait beste zernahi eraketaz zer ikusirik gabeko saiakera, ez gutiziaz muntaturiko saiakera bat, gizarte honen eraketak kausatua baizik eta giza-eraketak aldatzeko noski. Ekintza negatibo honek, prozesu baten hasera dateke, alegia ikasleen kontradizio zehatzak agirian jarri ahal dituen prozesu bati abiadura eman dezaioke.


Lehenik topatzen diren kontradizioak familiarena eta eskolarena dira. Programa eta gain behera isuririko kontenidoak bazter ditzagunean, ikasleak egoera konkretu baten jabe egin daitezke. Kontradizio hauk aztertzeko beharrezko den giroa edo lekunea sortzen da eta hauen aurkako ekintza bat muntatzeko egokiera eman daiteke. Eta ekintza konkretorik posible ez denean ere eginiko analisiak, irudimenak aberastu eta aska ditzake, esijentziak sumatu eta praktikan ito egiten badira ere, bizirik dira eta aurreneko egokiera ukan dezatenean ez dira kontrolatu ahal izanen. Adibidez pentsa dezakete, irudimenean asma dezakete nola behar duen eskola demokratiko batek funtzionatu, nola aginteak menperatzen dituen ikasleen nahiak baina baita nola ere ahal dezaketen batera badaitez aurpegi eman nahiz adarrak jo.

Eskolan bizi dituzten arazo hauetatik abiatuz ikasleen kezka

beste zenbait eremutara zabal daiteke. Gurasoen lan-bidea, zenbait ikasleren jatorriaren aldatzea, eta herrixka nahiz hauzo batean egin dezaketena lana.

Bereala sortzen den bigarren kontradizio bat, autoritario harremanak krisian jartzen direnekoxe, familiarena. Agintearen esperientzia familia mailan egiten delarik hementxe sumatzen da ongien agintearen zama. Ikasleek har ditza keten jokabideak oso ezberdinak izan daitezke. Batzutan nor bere familian arrotz bat dela sentitzera bultza dezakete. Bestetan aitzitik, gurasoengana bere semea hurbil daiteke, galdetuz eta kontu eskatuz ari duten lanaz, heziketaz duten ikuspegiaz eta gainerako arazoez, elkarrekin mintzatzera heltzen direlarik.

Benetan garrantzitsu dena zera da: prozesu baten hasera izan dadin gizarte honen kontradizioak oro bilduko dituen prozesu bat martxan jartzea, alderdi ezberdinetatik ikuspegitzen direla, elkarren arteko lotura ikusten dela, azterketa bat egitea behartzen dutela. Hemen lortu nahi dena ez da kultura hobe bat, txarrago baten ordez ematea, ez-eta ikasle re



akzionarioak baztertu eta iraultzailerak sortzea. Lortu nahi dena kontradizio bizi hauen aurrez-aurre ikaslea jarri eta hauek aztertzea eraginen dioten giroa sortu eta laguntza eman. Lan hau konkretoki egin nahi bada nahi eta ez klase arazoz topo egingen dugu, marjinazioaren esperientzia egunero egiteko egokiera ukanen dugu. Kanpotik etorririkoen problemaz topo egingen dugu. Eta lehenik bera dela lanean hasten dena ikusiko dugu. Eskolak interesik ez duela ikusiko dugu eta honen arazoein bila hasiko gara.

ERA HONETAKO LAN BAT EGIN AHAL IZATEKO BETE BEHARRERAKO KONDIZIOEEZ.

LEHENA.- Irakaslea ez daiteke bere eskolan neutral izan. Bizitzan politiko konpromiso batek sortzen dituen eginbeharrez kontsekuente behar du izan. Egunean eguneko gertakizunen azterketa bat egiteko koordinatzailea izanen da. Eta azterketarako behar diren tresnak irakasleen esku jar ditzaiken laguntzaile. Bere neutralitaterik eza frogatzeko egokiera asko izanen du. Esaterako eskola berean sortuko da beti besteak baino beranduago dabilten ikasleak baztertzeko eta selekzio bat egiteko tentaldia, hona hemen selekzioaren aurkako lan konkretu bat egiteko abagunea. Edo-eta konformismoaren jokaera nabaritu bezain arin jendea jokaera honen arriskuaz ohar-eraz dezake.

Gehientsuenetan eskola osoak irakaslea eredutzat har dezake eta kritika egiazkori uko egin. Egoera hauen kanpoko giroaren eraginaz behin eta berriro presentatuko dira eta irakaslea aurka burukatu beharko da.

Honetaz gain, irakasleak ez du beti agintearen papera bete behar, nahiz-eta honetarako bere jakituriak, maiz aski, egokiera eman. Arazo ezberdinetan agintea pertsona ezberdinak har dezaten lortu behar du. Bere eritziak bezain errespetu handiz besterenak ere entzunak daitezten, gaiari dagokion heinean lor dezake. Langileez hitz eginen denean, honetaz esperientzia duen batek hitza atera dezake, bere gurasoen lanaren bidez honetaz ezaguera duelakotz. Honela, batak eta besteak entzutea ukan dezakete, agintearen papera aldatuz batetik bestera pasatzen dela.

Irakasle asko kexu da eskolako giroa oso osorik kanpoko giroaz kutsaturik delako. Ikasleek nahi dute irakasleak hitz egin dezan aurrez entzunak edo ikusiak dituzten zenbait arazoez. Orduan irakasleak beste zenbait arazo berri eskolan sartu beharrean bere arazo pertsonalak harro ditza ke. Bere bizitza kontradizio lez

presentatuz. Ez doktrina berri bat proposatuz bere bizitza egunerokoan, bere jokabideaz nola estatuaren aparato hauk kontestatzen dituen agertuz. Nola bere bizitza giro honetatik urrun egiten duen adieraziz. Irakaslea bera izanen da kontradizio bizi eta nabar menena, eta bere bizitza probokazioa. Deformazio kolektibo baten menpe diren ikasleek ez dute beste biderik hau izan ezik. Hau kontenido zehatz bat inposatu gabe egin daiteke eta egiten saiatu behar da. Jokabide konkretu bat daraman pertsona batek eta konpromiso batzuk betetzen dituen norbaitek bakarrik egin dezake hau, noski.

BIGARRENA . Bigarren baldintza inguruko arazo nagusiekin harreran hertsu bat edukitzea da. Bai irakaslea eta bai ikasleak inguruari atxikirik lanean ari behar dute; bestenaz, irakaslearen agintearen erastearekin hutsune bat sor daiteke eta ikasleak berriro ere segurantz bila, irakasle autoritario baten bila joko dute. Ikasleek agintearekin identifikazio bat egiteko beharra sentitzen dute eta zinezko identifikazio hau eskolaz kanpo lan politiko konkretu bat egiten duen hez le batekin.




Honela agertuko da agintearen gaitz-estea ez dela negatibo lan ustel bat, baizik positiboki lan konkretu bat gizartean bultzatzen duen eragina. Ez da lan destruktibo bat soilki izanen. Autoritateari egiten zaizkion erasoak funtsik badutela adieraziko da eta ordezkio lan bat konkretu baten posibilitatea zabal agertuko da. Ikasleek eginkizun sozial honekin identifikazioa egin dezaten edo hurbil ikus dezaten. Gainera, eginkizun konkretu hau betetzen duen irakaslea ikasleei bere ximpletasunean agertzen zaiela bera kontrola dezaten posibilitatea ematen die, bere

bizitzaren haria jarrai dezaten aukera ematen bait die.

HIRUGARRENA. Esperientzia hau egin ahal izateko denbora behar da. Eskola batetan gutienez urte batez lan egin behar da, eta pausoak bata bestearen ondoren eman behar dira, etapa ezberdinak errespetatuz. Eta ez da eskolako denbora hutsean soilik eginkizuna bete ahal. Eskolako orduetarik kanpo luzatu behar da eskolan sortzen duen etena eta giro artifiziala gailentzeko. Bestela, ordu batez bakarrik era honetako ikasgaia egiten bada ordu hau lasaitzeko ordua izanen da eta ez egingazko burruka bat egitekoa.

Era honetako esperientzia bat ez da beste kultura bat proposatzeko bidea, ez-eta eskolak betetzen duen funtzio soziala ezabatze modukoa. Baina gutienez eskolak betetzen dituen Domestikazioaren zenbait alderdi agirian jartzeko lagun dezake. Eta kontradizio hauk biziki suma ditzanak agian zerbait areago ere egin dezake.


Kepa Hernabide



HERRI-KULTURA

Kultura berri baten beharraz, jende asko mintzatzzen hasi zaiku egun. Halere funtsezko arazoa, kontra-kultura honen kontenidoetan eta metodoan datza. Kontenido eta metodo berri batzu proposatu asmoz eginiko saioen artean, Paulo FREIRE-k egina aparta dela deritzagu eta honen berri laburki emanen dugu.

Egungo saioen akatsik agirikoenak oso teorikoak izatea da. Freire-k egiten daukun proposamena, aldiz, esperientzian ongi errotua da. Edo hobeki esan: Hezle iraultzaile honek pertsonalki zuzenduriko zenbait saiakeraren teorizatzea besterik ez da. Saio hauk Brasil-go "Ipar-Ekialdean" eginak dira lehenik, gero gartzeletako isiltasunean ausnartuak eta azkenik atzerrian (Txilen) osotu eta argitara emanak.



Pedagogia honen berezitasuna edozein kontestotan bir-landatzeko non eta nola jaioa den ikusten ahalegindu behar dugu. Egoera berezi bati erantzunean landua izandu da eta egoeraren aldatzeak metodoaren moldaketa edo hartaratzea eskatzen du.

Pedagogia honen abiaburu "isiltasunaren kultura" da, hots, Herria isilik dago, aspalditik BERE HITZA ateratzeko ahalmena eta eskubidea galduak ditu. ISILIK dago bere hitza ateratzeko beharra, ez-eta egarria sentitzen ez duelarik. Hau, gizaldi luzeen buruan, kolonial aginteak jarritako "muturrekoaren" ondorio da. Freire-k "isiltasunaren kultura" deitzen duen instrumento honetaz baliatuz aginteak masak mututu-erazi ditu. Ez dute ezertan parte hartzen, erdi hilik datzate. Hau da

Brasil-go egoera eta hemen errotu nahi du Freire-k bere pedagogi giko ikuspegia. Jakina denez, egungo Brasil-go aginteak, politiko-ekonomiko indarrek sortzen dituzten desekilibrioen arabera aldatuz dohaz. Baina aldakuntza hauk sortzen dituzten berrizteak goi-mailatan soil-soilik gertatzen dira, Herria berrizetik kanpo dago, komunikazio bide guztiak moztuak ditu.

60-garren urtean, Populista mugimen duak, honetarako politiko egokiera sorturik, sasoin hartako aginteak masa mobilizatze lanari ekin zion. Nahiz-eta zenbait kasutan jokabide anbiguo batez lanean ari, hau da masa mobilizatu, agintea herriratu baina ez gehiegi, honetarako bere esku zituen kultural eta politiko instrumentoez baliatuz, herriaren alfabetatzeari hasera eman zion. Sasoin hartako irakaskintzaren ministroak eskubide zabalak eman zituen.

Goi-mailako irakaskintza Darcy Ribeiro-ren esku geratu zen, erdi eta behe mailakoa Oliveira Limaren ardurapean geratu zen eta "herriaren kulturaren lantzea" Paulo Freire-ri eskaini zitzaien. Paulo Freire-k sorturiko mugimenduak lehen aldian, transizio-haro bati dagokion eran hartu eta egin zuen lan hau, gero kulturak iraultza errekuperatu eta sakon zezan. Hasi, Angicos hirian hasi zen (RIO GRANDE DO NORTE). Lehen txandako 300 langileak 45 egunez alfabetatuak izan ziren. Honek arrakasta handia sortu zuen eta sistima hau bizkor zabal zedin gobernuak eskatu zuen. 1963-ko ekainatik 1964-ko martxorarte, hiriburu guztietan alfabetatze ikastaldiak antolatu ziren. 1964 planifikazioan, asmoa zenez, 20.000 zirkulo eratuko ziren, BI MILOI pertsonak parte hartzen zutelarik. Baina martxoaren 31 gobernuak erori eta agintea militarren eskuetara heldu zen. Planifikazioa hankaz gora bota zuten. Paulo Freire-k ere represioaren eraso jasan behar ukan zuen. Klase pribilegiatuek ez bait zuten aurrerantzean onartuko, herriak bere pribilegioez dudarik egin zezan. Baina orduan erneriko iraultza gosea ez du militar aginteak ito ahal izan.

P. Freire-k bere metodoaren azalpena, "Educaçao como pratica da libertade" liburuan ematen dauku. Hemen, batipat, zapalduen pedagogiaren instrumento berria, hots, -kulturaren zirkulua-nola muntatu behar den azaltzen dauku. Metodo honen sakontze praktikoa bere hurren liburuan "Pedagogia do oprimido" topa dezakegu. Atzerrira alde egin behar izan zuenez geroztik, Txileko gobernuak hala nahirik, delako "reforma agraria-n" lanean ari izan zaiku. Eta han bereko laborariekin eginiko lanaren berri, azken liburu honetan ematen dauku. Geroztik Harvard Unibersitatean denboraldi bat iragan ondoan, Ginebran lanean dihardu.

"Kulturaren zirkulua" elkarrizketaz eta kritikaz moldatzen da, guztiek bizi dituzten arazoak aztertzeko eran. Ez dago zuzendaririk zirkulo honetan, koordinatzaile bat baizik. Heziketa ofizialaren programei jaramonik egiteke, bide berri batzu markatzen eta urratzen entseiatzen da. Pertsona bakoitzari bere bizitzaren eta esperientziaren bide iluna BERRIRO egiten laguntzen dio. Bizitzari so jarriaz bizitza irakurtzen irakasten dio. BAINA BIDE HAU NORBERAK EGIN BEHAR DU. Esperientzia berri hau egin hala, pertsona bakoitzak idorotzen duen kontenido berriaren lehen urratsa edo lehen dimensioa, kulturaren ikuspegi antropologikoa izan da, Freire-n eritziz. Hau da, kulturaz jabetu baino lehenago edo honekin batera kultura esperientziaz jo, kultura bizi. Honek errealitatearen ikuspegi magikoa gainditzen laguntzen du, eta ikuspegi kritiko alderat ateak zabaltzen ditu.

Zenbait situazio bizi idurikatzean, errepresentatzean, pertsona errealitatearen bi mementoz jabetzen da, hots, naturalezarenaz eta kulturarenaz. Bata bestiaz erlazionatzen ikasten du. Naturaleza medio dela, gizonak, bera dela egiaz sortzaile eta naturalezaren aldatzaile esperimintatzen du. Kulturaren esperientzia bizia oinarritzat harturik, gai zehatz batzuen azterketa bizia has daiteke. Mekanikoki egiten den alfabetatzea bazter-

turik, alfabetatze kreatzailerat abiatzen da pertsona. Honen mui nean "HITZ SORTZAILEEN" sorta dinamikoa dugu. Hitz haueta ko bakoitzak, gai funtsezko bati heltzen diola eta egoeraren aztertzerara eragiten duela. Gero hitz hauk silabatan deskonposatzen dira eta era ezberdinetara elkarrekin itsasten direlarik, hitz berriak sortzen dira.

Alfabetatze honen balorerik bitxiena eta edozein tokira alda daitekeena, KONTZIENTZIATZEA da. Zoritxarrez denok dakigu KONTZIENTZIATZE hau ezin dela maiz aski erabiltzen dugun pedagogiaren bidez lor eta erdiets. Honetarako "funtsezko heziketa" beharrezko da. Hots, komunitate baten bizitza globalki harturik krisian jarriko duen heziketa mota behar du izan. Komunitate honen jokabidea, konpromisoak, egunero sortzen diren problemei ematen zaien erantzuna, dena da harrotu beharreko. Metodo hau ez da bada jatorrago alfabetatzeko, besteak baino efikazago delako. Aitzitik, metodo honen jatorrasuna, kontzientziatzeko erabiltzen dituen kontenido berrietan datza. Ez da elkarriketarako nahiz izkribatzeko molde berriak eskaintzen dituen metodo tradizionala.



ti ere nork BERE KABUZ bere bizitzaren bidea bir-ibil dezan. Honetatik kontzientzia berria finkatuz johanen da.

KONTZIENTZIATZE honen berezitasunak honela bana ditzakegu :

- 1.- Teknika hauk erabiliz, alfabetatuak munduaz IKUSPEGI BERRI bat bereganatuko du. Honek mementoan bizi duen egoeraren kritikara eraginen dio. Bidenabar egoera hau gainditzeko posibilitateak ikus-eraziko dizkio. Baina be-

2.- EZ DA pertsona soilak kontzientziatzen, komunitate osoa bai zik. Eta gainera egoera berdinean den komunitatea, problema berdintsuak elkarrekin direla eta erantzuna ere elkarkidetzan eskatzen dutela.

3.- Heziketa, errealitatea globalki transformatzeko beharrezko den, prozesu iraultzaile baten lehen mementoa da. Heziketa mota honek, iraultza egin beldurrez erdi-bidean geratzeko tentazioan erortzeko diren mugimendu guztiei errapostu botatzen die.

Analfabetismoa gainditu nahi dezagunean edo-eta eskola eraketa oker bat zuzendu asmoz lanean has gaitezenean, beti era gozpen berdina izanen dugu :KLASE KULTURA. Kreatzaile izanen den kultura bidean sar nahi bagaitez, Freire-n eritziz, egun go gure KULTURA HAU BEHAR DUGU PROBLEMATIZATU. Ez i purdiz gora botatzeko, mendez mende ukatu daukuten hitz egiteko eskubidea errekuperatzeko baizik. Gure HITZA bir-hartu eta ateratzeko.

Kristau konprometatua dugu Freire, Mounier-en pertsonalismoaz ongi jabeturik dena eta marxismoa azterbide bezala zorrotz erabiltzen dakiena. Baina berak esan ohi duen bezala ez da inongo eskematan sartzekoa. Bere lurrari eta hango gizonari atxikia da. Egun, bere historiaren jabe izaten hasi den zenbait herrik behar lukeen kultura-gizon horietakoa.


Lehen aipaturiko berezitasun horietaz gain ere, gizonari di-on maitasun gartsua seinala dezakegu. Baina maitasun hau, Freire-n izkribuetan, ez da hitz hutsa, konpromisoa da, gizona dagoen tokian dagoela eta dena dela lagun-hurkotzat hartzea da.

Itxaropenaren gizona dugu Freire. Utopia predikatzen ausar"

tzen den horietakoa. Behin eta berriz maitasunezko iraultzaz mintzo zaiku, eta CHE-renganako mirespena gorde ezinik iraultzaile ia-ebangelikoa deitzen du. Bere liburuak munduko hon-dakin guztiei eskaintzen dizkie, maitatzeko ausardia izanagatik, gartzeletan giltzapetuak diren guztiei. Atzerriratzeak ez du ko_kildu eta inoiz baino gogorrago, bere herriari hitza ateratzeko eskubidea eman dakion, burrukan diardu. Nahiz-eta ongi jakin honegatixe, gizon honekin hitz egiteko bidea moztu egin diotela. "Ipar-Ekialdeko" bere gizona, lehorteak eta zuzenik-ezak ximurtua duten gizona.

Liburu hauk ez dira liburutegian gordetzeko, gizon konprometatuak ausnartzekoak baizik.

X. L.



Erligio - Heziketaz

Teknika-mundu berria.-

Mila bider entzun ohi den gauza da egun, mundu edo mundukera berri batetan murgildurik aurkitzen garela. Teknika eta zientzia dela medio, herrien eta jendearen bizimoldeak aldakuntza izugarri baten eragina jasan duela, eta horrelako gauzak.

Ondorioz, gizakera edo giza-balore berriak sortu direla. Alegia, egungo gizonaren iduria ez dela lehena, berria baizik, eta giza-iduri berri honen kontestoa "humanismo teknikoa" deitzen dugun zeren-eta teknikak zertu edo itxuratu bait du batipat egungo gizona gisa horretan.

Bestalde, humanismo tekniko honen hedadura ez da teknikoen edo zientzia gizonengan hesi-mugatzen; zabalagoa da dudarik gabe, eta giro baten arnasa balitz bezala, denok, motor honek eragirik eta mugiturik gabiltza. Beronek mugitzen du ekonomia, eta etxe-barneko bizitza, eta beronek baita, fenomeno orokor bat denez, ukitzen du gizaki bakoitzaren jokabide eta pentsamendua. Esan gabe doha, oharturik edo oharkabean baina, mundukera berri baten eremuan gaudela eta hori horrela, heziketaz zer-nola pentsatzen dugunak edo, nahi bada, hezitzaile bezala dugun jokabideak baduela garrantzirik asko.

Halaber, heziketaren haria apur bat luzatuz gero, eta erlijio-bidetik eramán, xinplekeria bat izanen litzateke zenbait alditan sokatira gogorrean eztabaidatzen ditugun galdeak: irakatsi behar da ikastoletan erlijioa ala ez? Kristau behar ahal dute izan ikastolek? Haurraren erlijio-heziketa seguratzeari ez ahal dagokio kristau-elkarteari edo-eta ikastolak ere arduratu behar du eginkizun honetaz?

Zenbat eten-urraketa ez ote sortzen bazterretan erlijio-hezi-keta arazo honek guraso eta irakasle artean, Eliza eta ikastolen ar-tean?

Hain xinpleki eta, esan dezagun, hain biziki, haragi bizian bait dadukagu egun, planteaturik dagoenez gero, on litzake ahalik eta sakonkien argitzen johan gaitezten. Alabaina, behar dugu er-lijio-heziketaren arazoa baino lehenagotik arduraz beste zertxo-bait aztertu: heziketarena berarena alegia, eta are gehiago, hezike-tarena behar bezainbateko estimuz hartzeko, behar da ere teknika mundu berri honen berezitasunik adigarrienak ikasi.

Egia eta ekintza.-

Duela zenbait urte Mounier pentsalariak esanik zuen behin e-ta berriro: "gure arbasoentzat, gure aintzinakoentzat, egiak, eras-kinik gabeko egia hutsak zuen balio eta, beste gabe, egia defendi-tzearren, prest ziren bizia ere emateko. Egun, ekintzak balio du".

Esan nahi baita, egia, ausnartzeko, dastatzeko eta gozagarri i-zateko zerbait ez-baina, ekintzabide edo ekintzarako tresna dela gaur egun. Egiak ez du beste gabe onartzerik merezi, baldin-eta errealitatearen eremuan aplika ez baledi eta munduaren jasokun-tzarako balio ez badu. Egiak, soilki, errealitatearen mailan baldin bada, ez ametsezko mundu huts batetan, balio du eta orduan da es-timagarri.

Horra zer gertatzen den: naturaren eremua, bizidun materia na-hiz bizigabea, ez dela jadanik errespetuz begiratu behar den erre-alitatea, baizik-eta gizonak bere eskuz moldatu edo eraberritu e-ta eraiki behar duen mundua baizik. Fisikak eta kimikak arrakas-ta handia baldin badute ere, ez du are gutiago, adibidez, biologi-ak edo psikologiak egungo gizonarentzat, eta hain xuxen bizitzaren edo esperientziaren mailan frogagarri zaion heinean dira interes-garri, hots, ekintzaren mailan, ez egia hutsaren mailan.

Beraz, gisa honetako munduan ez du deus balio, esaterako, jakintzak non-eta errealitate bihur ez dadin. Ez du deus balio, zeren ez bait interesgarri, eta halaber ez da interesgarri ekintzabide edo frogagarri ez delako.

Itsua behar luke izan batek gertatzen den hau ez ikusteko, eta ikusiaren arabera heziketa lanean ari den irakasleak hartu behar lukeen jokabidea hartzen ez ahalegintzeko.

Talde-lana.-

Hauxe da humanismo teknikoaren beste aparteko berezitasuna. Garai batetan, burges gizartean alegia, indibidualkeria zen nagusi eta pertsona bakarki baizik ez zen baloratzen.

Egun, elkartasun giro berezia nabari da nonahi eta gazteen artean batipat. Normala ere da hori horrela izatea, zeren-eta gaztearen begiak erne eta zoliago bait dira. Egun, profesio liberalak deitzen zirenek berek ere: mediku, abogadu, irakasleek... ezin dute bakarka joka edo lan egin.

horregatik, inon errotu gabeko pertsona eta bertute edo kualitate indibidualak sortzea beste helbururik ez duen heziketa poto jotzeko arrisku gorrian dabil. Derrirorreko da, beraz, heziketa moldeak lehen bai lehen laldatzea edo bederen zerbait efikazia egin nahi bada, gogotik entseiatzea. Bestenaz, teknika munduaren berezitasun bi hauk, ekintza eta elkartasuna, ahazturik, dabilen hezitzailea mundukera berri honen baitatik aparte dago.


Eta, zertan ote erlijio-heziketa? Heziketaz esan duguna go-goan harturik ere, erlijioa da guztiz kolokan gelditu den arazoa. Zinez, esperientziaren mailan froga ezin denak interesik ez badu sortzen, eta bistan da, erlijioa esperientziaren moldeetan ez litez


keela hesi-mugatu, alferreko tresna bat bezala ari da gertatzen. Hona hemen, beste gabe ere, arazo bihurri baten gakoa.

Baina lehengo mundukera, humanismo burgesa deitzen duguna alegia, liberala eta bakarkoia izan denez, erlijioaren espresio-bideak ere gisa horretakoak izan dira. Adibidez, bakoitzak bere arima salbatzea, bakardeko penitentzian nork bere burua murgildurik sakrifikatzea, edo-eta obedientzia, pazientzia, etab, liberal munduaren erlijiozko jantziak ziren, edo behintzat, gorputza hantitzen eta desarroilatzen dohan heinean, lehengo jantziak sobera ttiki eta herstu gertatzen diren bezala, gertatzen da horiekin.

Oraingoz, zenbait puntu aipatu edo ukitu baizik ez dut egin ahal. Hurrengo zenbakian jarraituko.

Barkaiztegi





Landareak

Gure aurreko lanekin uste dugu animaliak ikasteko ideia batzuk eman genituela, eta gure asmoa bete dugula. Orain, landareekin hasiko gara. Hauk ikasteko interesgarria deritzaigu, landare baten desarroiloa ikustea eta, zati bereziak agertzen do hazen heinean, arreta gehixeagorekin zati hauetako bakoitza ikastea.

Has gaitezen, beraz, landarearen bizitza, hazia denez geroztik, ikusten.

Hazia: Edozein hazitan zati hauk berezi ditzakegu:

- Azalak. Ordu batzuetan uretan eduki ondoren ongi kendu eta ikus daitezke. Bi ditu. Barnekoa kanpoko baina finagoa.

- Hazi atalak edo kotiledoneak. Azala kentzean hazia bi zatitan errazki puskatu badaiteke, bi hazi atal dituelako da, zati bakarra gelditzen ba da berriz hazi atal bakarra du.

Hauk hazibatuetan handi-xamarrak izaten dira eta landare erne berriarentzat elikabide dira.

- Ernamina: Bi hazi atal dituztenetan, hauen artean egoten da, eta bakarra dutenetan berriz erdibiturik ikus daiteke. Gero txortena eta zainak emango dituen da.

&\$&\$&\$&

Lan hauetarako hazi handi xamarrak erabiltzea komeni da.

Esate baterako: babarruna, txitxiloa, txindila eta bere sendikoak, eta artoa, garia etab.

Gainera hazi hauekin bi landare mota ikus ditzakegu, hain zuzen haziari buruz sailkatzen direnak: Monokotiledoneak edo hazi-atal bakarra dutenak (garia, artoa) eta Dikotiledoneak, bi hazi atal dituztenak (babarruna, txitxiloa...)

Oso interesgarria da haziak lurrian sartu baino lehen erretzen ipintzea, honela ongi ikus daitezke zain eta txorten jario berriak eta nondik sortzen diren.

Horretarako, kaxa batean algodoia edo filtro papera ongi bustia ipini behar da eta gainean haziak, kaxa ongi estaliaz, algodoia edo papera lehor ez dadin.

Zainak: Erretzen ipinitako hazietan zainak ateratzen hasten direnean azter daitezke, beti ere lurretik aterata baino hobeto ikusten dira-eta.

Hazi atalari buruz berezi ditugun landare motak, zainak ere ezberdinak dituzte. Monokotiledoneetan zain guztiak berdinak dira eta leku beretik ateratzen zaizkie. "Fasziculatua" deritzaio zain mota honi. Dikotiledoneak berriz, zain luze eta lodiago bat dute eta handik ateratzen zazkie besteak. Zain mota honi "pivotante" edo "axonomorfa" deitzen diogu.

Bai mota batekoetan eta bai bestekoetan garbi-xamar ikusten dira zati guztiak:

-Kofia, muturrean, horixeagoa da eta honetaz baliatzen da zaina lurrari bultzatzeko.

-Zaina hazitzen den partea goraxeago xuri eta bilutsirik.

-Ile lekua: ile zurgatzaileak dauden partea. Hauk luparekin hobeto ikusten dira. Erroak lurretik ateratzen ditugunean, ez dira ikusten, puskatu egiten diralako.

Beste era batera ere ikus daitezke zainak. Tipula edo bara-


txuri bat urez beteta ko botila batean jarri, zainak ateratzen - zaskion lekua uretatik gertu duela laister hasiko dira zainak ater ratzen. (1^o gn. irudia)

1^o irudia

Landareak ernetzen eduki ondoan, lurre- an alda ditzakegu.

Goi xamarreko mailetan, landareak lurre an ipini beharrean uretan ipini daitezke hazitzen, landareak lurretik hartzen duen janaria edo meatz sustantziak geok emanaz. Honela ederki ikusten dute haurrek landareak zertaz elikatzen diren.

Horretarako aho zabala duten ontziak be har dira, eta mehatz sustantziak nahastu- ta daramakiena urez bete.

2^o irudia

Sustantzia hauk edozein drogeritan sal tzen dituzte, eta landareak indartzeko bota ohi direnak berak dira (Fertiplan eta ab.)

Ontzi horren tapan zulo batzuek egin behar dira eta han jarriko ditugu erne tako haziak. (2^o gn. irudia)

Zulo hoietako bat hazirik gabe utzi be har da eta egunean bi aldiz lasto ba- tekin haizea eman.

Txortena: Landareak hazitzen hasi zaskigunean txortena ikas dezakegu.

Interesgarria da, txortena beti argialdera joaten dela ikuste a (fototropismo). Landareak lehiotik hurbil ipintzen baditugu i- kusiko dugu hauk beti lehiorat johaten direla. Behin okertu on- doren, bira ematen ba-diegu, hots, barrura begira ipintzen badi-

tugu, laster aldatuko dira berriro lehio alderat.

Are garbiago ikusteko sar dezakegu, lorontzia kaxa batean argia sartzen zaion zirriztu bat eginaz, eta ikusiko dugu, alde - hartara hazitzen dela.

Txorten mota bereziak ere ikus daitezke: Belarkien lastoa, zuhaitzen enborra

Hostoak: Ondoren, hostoak ateratzen hasiko dira, eta hemen berriro, lehenago egin dugun sailkatzea izango dugu, landare mota biek hosto ezberdinak baidituzte.

Monokotiledoneetan, hostoaren zainak paraleloak dira, gariarenak, artoarenak, tipularenak, "paralelinervias" deritzaie. Dikotiledoneetan berriz zain hauek adardunak dira eta sare antzeko bat osatzen dute, babarrunak, txindilak eta ab. "reticulinnervias" deritzaie erderaz.

Bi hosto mota hauetaz gainera bada besterik ere, eta zainei buruz edo inguruari buruz sailkatzen dira. Batxillerko liburu askotan ageri dira gehienak.

Hosto kolek-
egin dai-
rako, le-
egin
la hus-
ke.


errazen

Hau da

gi orri

artean

rri batekin inguratu, eta hestu-hestu lotu. (3^{gn.} irudia)



3^o irudia


zioak errazki
tezke. Horreta-
henik lehortu
behar dira, beste-
teldu egingo lirate-
Lehortzeko sistimarik
na prensa bat egitea da.
bi tauala artean izparrin-
pillo bat jarri eta hauen
hostoak sartu. Gero loka-

Maiz-xamar paperaz aldatzea komeni da, eta aste bete barru atera daitezke.

Hostoak klorofila dute

Hostoak klorofila dutela agertzeko, egin daiteke esperientzia erraz bat. Hosto mordo bat, puska txikietan moztu eta almaiz edo mortero batean txikitu behar dira. Honela hostoen zelulak puzkatu egiten ditugu eta klorofila erraz atera daiteke. Ondoren, alkoola bota almaizera eta nahastu ongi. Klorofila alkooletan nahasten da eta hau orlegi bihurtzen da. Hosto hondarrak kentzeko enbutu eta filtro paperekin iragazi eta isurki orlegi bat geldituko zaiku, klorofila alkooletan nahasten delarik.

Haurrentzat oso ulergaitza da fotosintesia, eta uste dugu, klorofila ikusiaz, nahiz ez oso ongi bitartez hartzen gina eta honi janariak edo Hostoen izar-
oa ere errazki a plastikozko ta ontzira lotuaz. tantoak plastikoan



errazkiago onartzen dutela, ulertu, landareek honen dutela eguzkiaren ener esker egiten dituztela sustantzia organikoak.

ditzea edo transpirazi ikus daiteke, landare- bolsa batekin estali e- Laster ikusiko ditugu, ur (4 gn. irudia)

Loreak: Udaberrian hasten direne onena, lore dira. Handi

gure landareak, loreak ematen an, dugu hauk ikasteko sasoinik gehienak orduan ateratzen bait xamarrak direnetan, batez ere, i

4^o erudia

rekirik ederki ikusten zazkie zati guztiak (ontzia, koroia, zilak, emakuntzea).

Hemen, uste dugu, garrantzizkoa dela loreen funtzioa zer-nola den garbi erakustea. Hau da, loreek landarearen kuntzea daramatela eta batzuek margo nabarmenak eta politikak dituztela baino badirela ia ikusten ez direnak ere, gariarenak esate baterako. Lore nabarmenak, mamutxek ikus ditzaten eta polena edo hazi attarra beste loreetara eraman dezaten, dute gisa horretako margoa. Haizeari esker ernaltzen direnak ez dute margo ederrik behar.

Gehienetan loreak guretzat apaingarri bezala ikusi izan dira eta uste dugu ideia hau baztertu egin behar dela.

Lore kolekzioak berriz, hostoarenak bezala egin daitezke.

Frutua: Gehienetan hurrek, hiritar edo kaletar badira behintzat ez dute, lore eta fruituaren artean erlaziorik ikusten. Horregatik, loretik leka ateratzen ikusten dutenean harriturik gelditzen dira. Honetaz ongi kontura ditezten, margo-eraz liezaieke, lorea bera, ateratzen denetik, leka bihurtzen den arte, maiz xamar.

Lekak egiten direnean ireki eta berriro guk landatu genuen hazia bezelakoa ikusiko dugu.

Haziak fruituari nola atxikirik dauden ikus daitezke, nola dauden alegia zilborretik karenari erantsirik. Hemendik heltzen zaie handitzeko behar duten janaria. Ikusten denez, hazietan, zilborrak ugazdunetan duen funtzioa bera du.

Honek ere adierazten dauku, biziki gehienak, aurreratuenek behintzat, funtsean, ugaltze sistema antzekoa erabiltzen dutela.

Fruituekin ere kolekzioak egin daitezke eta baita haziekin ere.

Liburuak:

-Manual de la Unesco para la enseñanza de las Ciencias.
Ed. Sudamericana. Buenos Aires.

Liburu hau lehenago ere aipatu genuen. Adierazi ditugu -
nak baino ideia askoz gehiago ematen dauzkigu landareak ikas-
teko, oso erraz egin daitezkeenak gainera.

IRUINEKO



ESPERIENTZIA BERRIA

Gure herrian hiru urte bitarteko haurrekin esperientzia berrian murgildurik gara.

Izan ere, Lazkanon, euskaldun hainbat erdaldun bada. Arazo hau izan dugu batipat, lan honetara bultzarazi gaituena; alegia, haurrak ahalik-eta ttikien ikastolan hartzea.

Beraz, taldetxo honen egiteko nagusia, hizkuntza (Euskara) ikastea izanen da; hots, ez genuke ahaztu nahi era berean (eta ikastolan jarraitzeko zubi bat izanen litzakeela) adin honetan emanen zaion heziketa.

Aski nabari izanen da datorren ikastaroan, aurrez nork eraman duen taldeko bizitza eta nor egon den aita-amen eremuan soilki finkaturik.

Arazo hau, joan zen udan hasi zen guraso artean planteatzen eta zenbaiten ardura gartsua dela medio, laster baztertu ziren arazo hori zuzentzeko sorturiko oztopoak.

Honela, urte honetan eman zitzaion hasera. Hamabost haur dira eta hauetaz arduratzeko andereño bat prestatu zen. Egun, bi lagun ardurapean hogeitazazpi haur badugu.

Bi lagunentzat nahiko lan gerta ohi da, zeren batek egun osoa "mama" arrantzaz iragaten du; besteak berriz, hori ere esaten ez dakiela oraino etab.


Guztien berezitasuna zera da: BEREKOIKERIA alegia. Bakoi tzak gelan ikusten duen guztia berea duela uste izaten du. Guztia zergatik den esan beharra dugunik ez dut uste, baina, esan gene

zake sendiko bakar bizitzaren ondorio edo perkala dela.

Edonork antz eman lezake zein diren ikastaroaren haseratik dabiltzanak eta zein azken aldera hasiak diren.

Aurrerantzean informazio zabalagoa eta sakonagoa eman ahal izanen dautzuegu.

Hau dela-eta jo dugu Barzelona aldera:adin horretako haur-
ren ikastolak ikusteko asmoz.



Eta hau izan dugu akatsik handiena berriz:denbora gutti eta gauza asko ikusteko, eta baita ere kursoaren azken -hilabeteetan izan dela gure bisita.

Lau egunetan hiru ikastola ikusi ditugu:Xiroi, aterbe edo guarderia deitzen den bat (Horta eskualdean) eta Xiribit. Esan behar da ere bat ez besteak hiri-bazterreko ikasto-

Hona hemen gu hara eraman gaituen helburua:zer metodo eta zer material erabiltzen ote duten haur ttikiokin hizkuntza lantzeko. Lehen esanik den bezala, 27 haur ditugu bi irakasle ren artean eta erdi-erdiak erdaldunak dira.

Hango bi ikastolatan behintzat, ez zegoen bilingüismo prole-
marik, gehienak katalanak bait ziren. Bestean, katalanez eta erda
raz aldi berean zuten egiten. Xiribit ikastola da jokabide hau dara
bilana. Haurretarik zenbait, atzerritarrak direnez, bortxaturik daude
de bi hizkuntzak batera lantzeraz.

Galdetu nien ea zer metodo erabiltzen edo zer egiten zuten haur horiei katalana irakasteko. Esan zeutaten:

- Abesti laburrak erabiltzen zituztela eta honek, zinez, eragin handia ezartzen zuela haurrengan, baldin-eta behintzat abestiok hiztegi egoki eta aberatsez jaxten eta mimika askoren laguntzen baziren.

- Jolas eta jokuak:gehienik jostaketa librea.

= Ipuinak eta pertsonaiak idurikatzea.

- Errebista edo ipuinak eman haurrari, eta ohar-erazi horietako zenbait xehetasunez.

= Materiala berriz, asko, guk gure ikastolan erabiltzen dugun ber-bera zedukaten. Baina bazen ikastola batetan andereñoek berek eginiko material berezia ere:errebista zatiekin eginiko buruhaustea, eta oihalez, poxpolo kaxez, kromo, eta botoiez etab. eginiko zenbait gauzaki eder. Halaber, andereñoek margoturiko marrazkiz eginak...

Besterik ere galdetu nien:ea zer erdietsi edo lortu nahi zuten, adibidez, ikastaro honen bukaerako haur horien gandik. Hauxe izan zen erantzuna:

- Erresponsibleagoak izan ditezen.

- Elkar errespetatzen ikas dezatela. Adin honetan oso zaila hau lortzea baina.

- Haurra nor izan dadin laguntzea.


Ikastaro denean, esan zeutaten, aski lan sortzen dela haurrok ikastola-bizitzara molda eta ohitu ditezen.

Delako aipatu dudana "aterbe" horretan irakasle bakarra zegoen tituloduna; beste denak gabeak ziren. Baina guztiak ere ongi

jantzirik zirela ohar zitekeen haurren sikologiari buruz. Haurra zenbait -eta ttikiago are- eta zailago denez lantzea, hamabost egunez behin sikologo batekin biltzen zirela esan zeukuten. Eta neuk ere halaxe esango nuke: bi urtetako haurra hiru urtetakoa baino zailago dela. Neronek ikusia dut nahiz-eta sobera esperientzia ukan ez oraino biko haurrekin.

Hango ikastolek, bederen nik bisitatu nituenak, akats bat dute eta handia: ez dutela gurasoekin batere har-emanik. Ez da erraza ere agian izango, baina gisa horretan, bistan da, gurasoak ez dira deus arduratzen eta andereñoek teknika hutsean gelditzeko arriskua dadukate.


Beste ezer gutti dadukat esateko. Bakarrik, nahi duena datorenen ikastaroaren hasieran etor daitekeela materiala ikustera, eta eginik edo bildurik dugun apurra gogotik erakutsiko diogu. Eta elkarrekin mintzatuko edo iritziak trukatzeko, aldiz, noiznahi gauden prest.



Andereñoari Iparraldetik

Nere gora-behera eta esperientziaren berri emateko, otoi, eskatu zait. Ez dakit, zinez, nola moldatu iskribuz emateko, eta are gutiago aldizkarian artikulo edo dena dela argitaratzeko, zeren-eta ez baitut sekulan egin horrelakorik.

Horra, Iparraldetik etorria naiz Goiherriko herri batera praktikak egitera. Hauk ziren nere asmoak: praktikak egin eta kultura aldetik jantzi. Alde honetatik konplejoz betea nengoen. Oso eskas ikusten nuen nere burua, baina ezin nintzen egon besoak gurutzurik ere, ikusirik, andereño premia handia zela bazterretan, han eta hemen ere bai geroago ikusi dudanez. Gainera, nahi nuen bide egokia hartu herriaren zerbitzutan.



Gisa horretan, Sehaska-ko ardura-dunekin mintzatu nintzen egun batez. "Sehaska" mugaz handidiko ikastolen batasun antolatzaile eta sustatzailea da. Esan zeutaten egiteko urtebeteko praktikak eta bederen urte hori ordainduko zeutatela.

Baina oso guti ikusten nuen urte bateko ikasketak, eta hau pentsatu nuen: aste eta jai hilabete batzuek zehar lan egitea, neronek beste kurso bat ordain ahal izateko.

Titulo bat ez dut guztiz beharreko jotzen andereño on bat izateko, baina kultura oinarri fermu bat edukitzea bai. Maiz askotan errazago da deus ez dakigula pentsatu eta geuren konplejoarekin gelditzea. Bada garaia, ordea, pentsatzeko behin ere ez dela sobera berandu eta geure herrian lan egin behar badugu, beharko dugu ahalegindu ere geuron buruok jazten.

Ikastolako haurra.- Ikastolan sartu eta haurraren prozesoa

gertatu zait harrigarrien. Ez nuen pentsatuko horrela irekitzen ahal dela haur bat hain txikia izanik. Kursoaren hastapenetan haurrik gehienak (txikien ikastolan nabil) hertsiki eta berekoiak ikusi ditut; baina sasoin honetarako zer diferentzia egin duten, jostaketaren bidez eta ikastolan ematen den heziketa berezia dela medio.

Etxeko edo familiako giroa garbi nabari zaio haurrari kasurik gehienetan: zenbaitetan maitasun-beharra, ezinegon xelege bat, zozotasuna eta guztiaren gainetik eta denek agertzen duten berezitasuna: berekoikeria.

Esperientziagarri. - Ez naiz etorri nintzen herri berean eta ikastola berean ihardun denbora guztian. Hara, Eguberriak inguru beste herri batetan egona naiz zenbait aste zehar. Esan behar dut, gisa horretan, zulobetetzen alegia, bilerak egon naizela. Beraz, bi esperientzia egin ditut hemengoz aparte, eta biak diferenteak, baina ongarri gerta zaizkit.



Berehala ohartu nintzen lehendabizikoan, hura ikastola ez-baina, beste edozein eskola zela zertxobait euskaraz eginaz.

Mintzatu nintzen juntakoekin eta ahal nuen moduan ikastola baten funtsezko kondizioak zeintzuk ziren agertu ere bai. Ongi hartu zeutaten. Gerta zitekeen bestalde ere.

Dena dela, andereñoak ere onartu zuen, zeren-eta ez zen bere errua, tituloa izan arren, ez bait zuen praktikarik inon egin ahal izan. Konpondu zen arazoa.


Tristeago izan zen bigarren kasua. Egunean bost klase ematen zituen andereñoak, baina ezin eramana zuen ongi lan hori de

na. Hurrei eginkizun multzo bat eman, eta berak bitartean beste klaseak prestatzeko denbora hartu. Hura ez zen ez ikastola ez-eta deus.

Bizpahiru haur baziren besteak baino bizkorragoak, gogoko zituenak, eta haiek beti gora aupatzen zituen besteak alde batera utziaz. Andereño artean oraino pentsakera hori edo gisa horretako jokabideak bazirenik...! Berdintasun etab., teorizko hitz politikak ez badira!

Egun, ikastaroaren amaitzean ausartuko nintzake zenbait ohar egitera. Badirela andereñoak beren orduak ikastolan emanaz gero, deus gehiagorik arduratzen ez direnak. Beharreko ikusten dudu la herriko jende eta gazteekin har-emanak edukitzea. Halaber, haur bakoitzaren guraso eta familiako giroa ezagutzea. Andereño garenok, denok elkarreraturik lan egitea; hots, ikasteko aztertze eta elkarri laguntzeko, eta baita solas eta jolaserako ere.

I. ARAMENDI



Udako Ikastaldiez

Aurtengo ikastaldiak gainean ditugularik, hauen antolaketa-
ren urratsak adierazi nahi dauzkitzuegu. Bistan da bai, oraindik e
re azken-ukituak falta dituela, baina laster emanen dugu programa
zehatza. Bien bitartean...

Lehen ere esan izan dugun bezala, udako ikastaldia ikastaldi
ez-baina, ikastaldiak izanen dira. Urtean zehar ukan dugun hain-
bat gora-beherek, irakasle guztiok batera elkartzeko ditugun mu-
gen berri ongi adierazi daukute. Bestalde, garbiro ikusi dugu iku-
si ere, ikastaldiko lana benetakoa izan dadin: urteko lanaren espe-
rientziak biltzea eta jasotzea, gaiak guztiok eta bakoitzak presta-
turik eramatea, aurrerat begira konpromisoak hartzea... hitz bate-
tan esateko, bakoitzak zer aportatu eta elkarrekin lanbide berriak
sortzeari heldu behar zaiola.

Eraketa, batez ere programa alderdia, lanean ari den jendeak
eskatuari begira eratu da. Alegia, batzuk, maila bakoitzari dagoz-
kien gaiez osatu dute; besteek, elkarren inguru dauden bailara ba-
tzuk bildu eta han berean gehienik behar dituzten gaien hautape-
na egin dute; eta beste batzuek, berriz, urtean zehar gurasoekiko i-
zan dituzten arazo eta aldrebeskerietan aoinarriturik, gisa honetan
arazo berdintsuak dituzten bailarek elkarrekin bildurik.

Hona oraingoz prestatzen ari den programaren haria:

a) DONOSTIA3-6 urtetakoentzat

- Irakurketa
- Espresioa
- Sikomotrizitatea
- Haur erdaldunak

6-tik gorakoentzat

- Hizkuntza:bilingüismoa
- Euskal kultura
- Disziplina
- Sikologia

Oharrak:

- 1.- Ikastaroan zehar eginiko esperientziak behar dira lan du eta taldean azaldu.
- 2.- Ikastaldian erabiliko diren gaiak, ahal den heinean behintzat, aurrez ikasiak behar dute izan; alegia, ikastaldian emanen diren gaien hautapena egin ondoan, zenbait liburu edo material arakaturik johan behar da.
- 3.-Ikastaro berrirako programak: bai ikastola barnerako eta bai irakasleok elkarrekiko.

NON: DONOSTIAN (Mariaren Bihotza Ikastegian)

NOIZ: UZTAILAREN bigarren hamabostaldian.

b) GOIHERRI

Gai bi hautatu dituzte bereziki ikasteko eta sakontzeko baidara honetan.

1) Haurra eta bere ingurua.- Iragan den ikastaroan zehar irakasle irakasle artean landu duten gaiaren ondorio eta sakonketa.

2) Sexual-arazoa haurrengan.-

NON: garaiz adieraziko da.

NOIZ: UZTAILAREN lehen-hamabostaldian.

&\$&\$&\$&\$&\$&\$&\$&\$

d) NAFARROA ETA BIZKAIA

Nafarrak eta bizkaitarrak, elkarrekin antolatzen gabiltzen kurtsilo batzuen berri hor duzue:

Oraino zehatzpen gehiagorik ezin dugu eman, laster zerbait konkretoago edukiko duzue.

EGUNAK : UZTAILAREN 6-tik 15-era

LEKUAK: Oraino konkretatu barik daude.

MAILAK: 3

LEHENGO MAILA: 3-4 urte

Gaiak: Haurren psikologia

Matematika

Espresioa : $\frac{\text{Hizkuntza}}{\text{Plastika}}$
Dinamika

5-6- urteko haurrak dituztenentzat

Gaiak:

METODOA:

Programa
Motibazioa

Antolaketa
Materiala

Matematika: Aritmetika eta geometriaren hastapenak

IRAKURKETA ETA IDAZKETA

Espresioa

7-8-9-10... urtekoentzat

Gaiak: METODOA: PROGRAMA
Motibazioa
Antolaketa
Materiala

GEOMETRIA

EUSKARA Dinamika

Espresioa :
Plastika

Oharra: Marra bat azpian duten gaiak, garrantzi gehiena dutenak dira.

Denok dakigu, kurtsiloak lan eginen dugun neurrian izanen dirala, horregatik hara joateko, puntu batzuk kontuan eduki beharko dugu:

- Aurten erabili dugun programa
- " " ditugun liburuen kritika
- Liburuxkaren kritika (Ikastoletako liburutegikoak)
- Haurtengo esperientzia berriak
- Oztopoak (guztietarikoak)
- Aurrerakuntzak

Mailaka elkartuko garenez gero, posibilitateak izanen ditugu programa orokor bat egiteko. Baita ikasgai bat edo bat aztertze-ko.

Hori dela-ta, ahal den eta guk eginiko lan gehienak eramán behar_ ko ditugu.

Aurretik pentsatu dugu, interesgarria litzatekela liburu batz_ ek irakurrita eramatea. Hona hemen aukeratu ditugunak:

- Por una escuela del Pueblo. Freinet.
- Técnicas Freinet de la Escuela Moderna. Ed. s. XXI.

Apuntatzen denari, batera bidaliko dizkiogu artíkulu batzuk gai batzueri buruz.



e) BARTZELONA

- 1) Rosa Sensat : UZTAILAREN 3-14. (Ez dugu oraino progr_ marik).
- 2) Bartzelonako Udaletxean: UZTAILAREN 3-8; gaia: Espre- sio eta Komunikazio teknikak.



43

DIN JAN... Bolefan

1) Udalekuak. - Lehengo urteotan bezala, Beiren (Nafarroan) eta Saturraranen antolatu dira, leku biotan bina txanda, Uztaila eta Abuztuan 6-13 urtetako haurrentzat udaldirako egoitzak.

Bizkaitarrak Lizarrara dohazela esan zaiku, eta donostiarrak (federaziokoak alegia) Barriara. Bistan da, lan zaila dela udalekuak ongi eramatea, baina bai lan txalogarria ere benetan.

2) Lilizain-Eskola. - Albiriste jator bat bildua genuen aspaldi danik; hots, sei urtez beheko haurrentzat andereñoak prestatzeko eskola bat eraikitzeko asmoak zirela eta... bidea ere aski urraturik zela. Batzuentzat amets edo buruhauste galanta izan den arazoa, besteentzat albiriste bihurtu dela esan behar, eta guztiontzat errealitate datorren urriletik. Hurrengo zenbakian xehetasun oroz eman ahal izanen dautzuegula, uste dugu, arazo honen berri.

3) Berezko Irakurpidea. - Izenburua hau duen liburuxka berria argitara emanik ikusi dugu, "Irakasleen Liburutegia"n bigarren zenbakia osatzen duelarik. Larresorok prestatua dela ikusteak ez gutiago poztu. Horrela, ez bakarrik gai aldetik, euskara aldetik ere zer ikasia frango emanen daukulako. Gure goresmenak.

4) Gatazkak. - Zer egun ederra gure artean batere eztabaidarik ez litzakeen eguna! Denok egun horren ametsetan, baina errealitatea besterik izan. Zenbait ikastolen izena belarrietan darrabilgu azken-bolada honetan: Ormaiztegi, Zumaia, Andoain, Arrasate...

On litzateke, guztiz on, kasu bakoitzean gertatzen denaren informazio xuxen eta ahalik zehatzen bat eman dadin, gauzak ezin gehiagoz nahastu baino lehen, beti ere egiak, bederen luzarora, ez bait dakar kalterik.

NON - ZER

Apurrak	1
Aintzin solasa	2
Egungo eskolaz pentsaketan.....	3
Herri kultura	14
Erljio - Heziketa	20
Landareak.....	24
Esperientzia berria	31
Andereñogai Iparraldetik.....	35
Udako ikastaldiez	38
Din...Dan...Boleran	43

